



3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Baliabideak eskuratzeko, edalontziak fabrikatzen dituen Vicrila enpresarekin aliantza bat sortuko dugu. Gure kasuan, enpresa honi edalontziak eskatzen dizkiogu; beraz, gure aliantza erosleen eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko izango da.

Aliantzak egingo ditugu institutuekin, ikasleen segurtasunarentzako komenigarria izango litzatekeelako institutuak gure produktua eskaintzea. Durangaldeko institutu ezberdinetatik hitzaldiak laburrak emango ditugu gure produktua ikasleei aurkezteko, baina alde zuzendariari aurkeztuko diegu produktua eta konbentzitu egingo diegu institutuan saltzeko, edalontzi normalak baino seguruagoak direla zehaztuz.

Tabernen aldetik, gure zonaldeko hainbat lokalekin aliantzak egingo ditugu ere. Esaterako, Durangoko Sweet and Vicious PUBarekin edo Apatamonasterioko Bar Penalti tabernarekin. Lokal haiei gure produktua aurkeztuko diegu eta aliantza bat sortuko dugu gure produktua erosi dezaten eta gero haien lokaletan bezeroei saldu diezaieten esaterako pack baten bidez (kubata+edalontzia).

Edalontziaren teknologia aditu baten esku utziko dugu. Berarekin kontaktuan mantenduko gara eta hileroko diru kantitate bat ordainduko diegu gure edalontzien teknologia sortzeagatik.

Gure taldean lau gara, eta bakoitzak zeregin batzuetaz arduratuko da zer eremutan trebeak garen kontuan hartuz. Pablo beste enpresekin edota adituekin dugun harremanetatik arduratuko da, hau da, beraiekin kontaktuan mantenduko da eta gure produktuen modifikazioen berri emango die. Bestetik, Libe, institutuei, tabernei eta bestelakoei gure enpresaren munitate buruz hitz egingo die eta hitzaldietan izango da, Unairekin batera, edalontziaren zehaztasun guztiak emateko. Unai web orria eta sare sozialak editatu eta gestionatuko ditu eta eguneratuta izango ditu. Horrek suposatzen du prezioak, diseinuak... etab. eguneratzea. Azkenik, Jone, bezeroen laguntzaz arduratuko da. Bezeroek arazoak izanez gero, Jone haiekin kontaktuan jarriko da laguntzeko.

